

EUSKAL HERRI BERRIRAKO

GAURKO SOLUZIOAK, BIHARKO AUKERAK

1.- KONPONBIDERAKO GARAIA

Euskal Herria bere luzera eta zabalera osoan hartuta, bertako herrialdeotan bizi garen herritar guzti-guztiok badugu arrazoi eta motiborik gatazka konpondu eta marko demokratikoaren alde aritzeko. Urrunago joan gabe, azken hamarkadetan, indarrez inposatu den lurralde zatiketak edota ukazio hutsak zer ekarri digun argi dago. Euskal Herriko lurralde guztietan jasaten ditugu gatazkaren ondorioak.

Horregatik dugu dena irabazteko. Demokrazia irabazteko, bakea irabazteko eta Euskal Herri berria irabazteko aukera dugu bertan bizi garen gizon eta emakume guztiok.

Herritar guztion egitekoa da Euskal Herriko marko demokratikoa antolatzea; erabakitze eskubidean oinarritua eta herrialdeen ezaugarri eta izaera aintzat hartuko duena.

Etorkizun demokratikorako bideak zabaltzeko garaia da. Euskal Herria, bere osotasunean, eremu demokratiko bezala antolatzeko garaia da. Estatu biek badute, orain eta hemen, aldaketa hori bideratzeko ardura. Baina azken hitza euskal herritar guztiona da.

Hogeita hamar urte bidea egiten

Azken hogeita hamar urte hauetan, Ezker Abertzaleak behin eta berriro planteatu izan ditu gatazka konponbidean jartzeko eskaintza politikoak:

- 1976. urtean hasita, orduan KAS Alternatiba deitu zen gutxieneko programa demokratikoa finkatuz.
- Handik bi urteetara, 1978an, programa egokitu eta marko demokratikoa eskuratzeko alternatibaren bost puntuak zehaztu ziren: Amnistia, Alderdi politiko guztien legeztatzea, guardia zibil

eta polizia Euskal Herritik kanporatzea, langileriaren lan baldintzen hobetzea, eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeak batuko zituen Autonomi Estatutua, bere baitan Autodeterminazio Eskubidea bermatuko zuena.

- 1979. urtean Euskal Herriko Biltzar Nazionala eratzeko oinarriak proposatu ziren.
- 1990ean, Algerreko negoziazio prozesu ahaleginaren ondoren, Autodeterminazioa eta Lurralde Batasuna aldarrikatzen zituen Nazio Autonomi Estatutua plazaratu zen.
- 1994ean, Ipar Euskal Herrian Autonomia proposamena aurkeztu zen, gatazka identifikatu eta burujabetzaren bidean ahalmen eta eskuduntza sendoak zituen autonomia eredu planteatuz.
- 1995ean, Estatu bien errepresio jardun latzaren ondotik, baldintzarik latzenetan ere, Alternatiba Demokratikoa plazaratu zen, euskal jendarteari eskaintza zabal eta demokratikoa luzatuz.
- 1998an, berriz, Lizarra-Garazi ekimenean murgildu zen bete-betean Ezker Abertzalea.
- 1999an, Euskal Demokraziarako oinarrien Proposamena zehaztu zuen Ezker Abertzaleak garai horretan irekitako prozesua bururaino eraman asmoz.
- Horrela heldu ginen, 2004an, Anoetan Konponbide Demokratikorako Alternatiba plazaratzera.

Konponbiderako eta bakerako proposamen eta ahaleginez beteriko ibilbide luzea egin du Ezker Abertzaleak azken hogeita hamar urteotan, eta beti, oztopoak oztopo, izandako esperientzietatik ikasi, akatsak zuzendu eta Euskal Herrira marko demokratikoa ekarriko duen unea hurbilaraziz. Ez da hori izan aldiz, gaur artean bederen, bi estatuen jarrera, eta iraunkorki mantendu dute beren ukazio eta Herri honen aurkako estrategia.

Egungo egoera

Aipatu jarrera eta strategiaren gainetik, Herri honi urtetan inposatutako markoak agortuta daude eta aldaketaren premia hedatu da Euskal Herri osoan. Zentzu horretan, euskal herritarren hitza eta erabakian oinarritutako marko berriaren aldarrikapena herri honen gehiengo zabal baten nahia da.

Horregatik, elkarrizketa, akordioa, gure Herriaren hitza eta erabakiaren errespetua eta ondorioz, bakea Euskal Herri osoan: hauxe da Ezker Abertzalearen lehentasuna orain ere. Anoetako proposamenari ekin eta sakonduz, Euskal Herria bere osotasunean eszenatoki berri batean kokatuko duen aukera demokratiko zehatza gauzatu daiteke garai hauetan, horretarako elkarrizketarako borondate demokratikoa eta akordiorako ardura historikoa agertzen badugu guzti-guztiok.

Horrela bada, aurtengo urtarrilean eta otsailean aurkeztu berri ditugun bi proposamenen bidetik, bi Estaturen menpe dauden euskal lurraldeek bizi duten errealitate zehatzetan oinarritu eta Euskal Herria bere osotasunean nazio demokratiko libre eta baketsua izatera abiatzen den bidea modu zehatzean marraztu dugu eta bide hori egiteari ekin diogu. Honela, Ezker Abertzaleak gatazka konpondu eta behin betirako bakea lortzea helburu duen proposamen historikoa zabaldu dio Euskal Herriari.

Bide horretan, lehen urrats sendoa aurtengo urtarrilaren 27an eman genuen, Uztaritzeko proposamena aurkeztuz, Ipar Euskal Herrirako Proposamen Politiko Instituzionala. Estatu frantziarrari aurrez aurre jarri diogu bere gaurko ardura: Ipar Euskal Herriak erabakitze eskubidean oinarritutako autonomia onartzea.

Horrela, planteamendu argia luzatu diogu Estatu frantziarrari. Aukera gisa hartu behar du, Europa osoan Euskal Herria ikusten ez duen Estatu bakarra izan ez dadin. Eredu jakobinoaren garaiak zahar gelditu dira. ¿Nork ez du euskara entzun nahi? ¿Nork ez ditu ikastolak ikusi nahi? ¿Nork ukatu behar du XXI. mendeko Europan Pays Basque Euskal Herria dela? Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa autonomia eredu propioan batzea da garaiak eskatzen duena, bertako herritarrek eskumenak behar baitituzte elkarbizitza antolatzeke, geroa bermatzeko. Hori eskatzen du Europaren bilakaera naturalak ere.

Bigarren urrats sendoa aurtengo otsailaren 7an eman zuen Ezker Abertzaleak, Negoziazio Batzordearen bitartez proposamen zehatza eta aurreratua luzatuz bai espainiar Estatuari baita gatazkaren konponbiderako Akordio Politikoa burutu behar duten indar politiko guztiei: Erabakitzeke eskubidean oinarritzen den Autonomia Hego Euskal Herrian.

Hortik dator Ezker Abertzaleak bai Estatu espainiarrari, bai Estatu frantziarrari luzatzen dien dei zehatza: Euskal Herriaren ukazio eta gatazka fasetik, elkarrizketa, akordioa, konponbidea, demokrazia eta bakea zabalduko dituen fase berrian abiatzeko deia.

Estatu biek Euskal Herriarekin mantentzen duten gatazkaren ondorioak aski ezagunak dira. Azken berrehun urteetan euskal belaunaldi guztiek ezagutu dute zuzen-zuzenean gatazkaren eragina. Gaur egun ere, gure geroa libre eta demokratikoki antolatzeko aukera ukatzen zaigu, Estatu bietako kartzelak euskal preso politikoz beteta daude, epaitegiak makro-prozesuz beteta daude eta gure hizkuntza eta kultura baztertuta. Beraz, gatazkaren ondoriorik kaltegarrienak denboran luzatu eta hedatzeko beste perspektibarik ez dute eskaintzen bi Estatuak, eta bien jokabide errepresiboaren ondorioek Europar Batasuna bera ziprizzintzen dute.

Estatu espainiarrari eta frantziarrari, bakoitzak bere eremuan eta bakoitzak duen errealitate instituzional eta politiko propioak, Euskal Herriarekin jarrera demokratikoa hartzeko eta horren arabera jokatzeko garaia iritsi zaie: oraingo zatiketa inposatuaren ordez, soluzio demokratikoa, herritarren erabakian oinarritua. Oraingo apartheid eta bazterkeriaren ordez, iritzi eta aukera politiko guztien errespetua eta gauzatzeko berdintasuna. Oraingo gatazkaren ordez, marko demokratikoa.

Ezker Abertzaleak joko arau demokratikoak exijitzen dizkie gaur bai Estatu espainiarrari bai Estatu frantziarrari, Herriaren eta herritarren etorkizuna jokoan dagoelako. Euskal Herria demokrazian eta bakean bizitzen ikustea ez da gehiago ametsa izango, baldin eta guztiok, elkarrizketaren eta akordio demokratikoaren alde indarrak biltzen baditugu.

2.- MARKO DEMOKRATIKOA OSATZEKO GARAIA

Marko demokratikoa eraikitzea da gure helburu nagusia, proiektu politiko guztiak demokratikoki gauzatzeko eszenatoki demokratikoa ahalbideratuko duena. Euskal Estatu independentea amesten dugun guztioi, atea parez pare ireki eta herritarren atxikimendu librez gure azken helburua lortzeko.

Europa barruko Herria gara, eta Europak gaur bizi duen eraketa prozesuan, Euskal Herriak garapen demokratiko propioa izateko eskubideaz eta aukeraz baliatu behar dugu arkitektura demokratikoa finkatzeko.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoatik, bertan bizi garen euskal herritar guztiontzako etxea eraiki behar dugu, guzti-guztiok XXI. mendeko Europan askatasunean eta bakean bizitzeko modukoa izango dena.

Euskal Herria, nazioa: eskubideen subjektu

Demokrazian egin beharreko bidea da proposatzen dugun Nazioaren antolaketa demokratikoa, eta lehen oinarri demokratikoan du funtsa: Euskal Herria badela aitortzean.

Zazpi herrialdez osatutako Herri eta nazioa dela gurea, eta bertan bizi garen guztiok, geure borondate eta erabaki librez, badugula eskubidea nazio honi bere instituzioak emateko eta horrela bere bizitza kulturalaz, ekonomikoaz, sozialaz eta hizkuntza politikaz erabakiak hartu ahal izateko. Gure nazio librearen izenean Europari eta munduari zuzentzeko eskubide osoa dugu.

Euskal Herrian, euskal herritar garen aldetik, inork ezingo digu ukatu gure artean geure hizkuntza den euskaraz ofizialki bizitzeko eta komunikatzeko eskubidea; inork ezingo digu ukatu geure ikastetxe, eskola eta unibertsitateak geure kulturen oinarriturik eta munduko kultura guztietara zabalik eratzea eta arautzea; ezingo digu inork ukatu esparru ezberdinetan geure bizitza komuna antolatzekeo eskubidea eta herri gisa ordezkatuak izatea.

Euskal Herriaren nazio erakundetzeaz

Euskal Herri osoan, geure instituzio komunak garatzeko oinarritzko eskubidea aldarrikatzen dugu. Arrotz zaizkigun mugen gainetik Euskal Herriaren nazio erakundetzeari, egitura politiko eta nazio instituzioei bide ematea.

Herriaren aitortza ez ezik, zazpi herrialdeetako bizitza politikoa eta juridikoa egituratzeko instituzioak, herri gisa dagozkigun eskubide eta

eskuduntza nahikoz hornitzeko ahalmena eta bi Estatuek eragiten diguten lurralde zatiketa instituzionalki gainditzeko bidea bermatuta behar dugu.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiaren egituraketa politiko eta instituzionala

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko lurraldeetarako marko demokratikoa eraikitzea helburu izanik, lau lurraldeetako herritarren erabakitze eskubidean oinarritutako Autonomia proposatzen dugu.

Gure proposamenaren edukietara joz, ondoko puntuak jasotzen ditu:

- Zentzu juridikoan Autonomiaren izaera izango luke.
- Etorkizun politikoa eta instituzionala erabakitzeko eskubidea lau lurraldeetako herritarrengan jarriko luke, eta horrela bermatuta geratuko litzateke proiektu politiko guztiak (independentziaren aldekoa barne) ez soilik defendatu baita gauzatu ere ahalko liratekeela, jendartearen gehiengoak era baketsu eta demokratikoan hala erabakiz gero.
- Nafarroa Garaiaren izaera eta identitate historikoa kontuan hartuz, herrialde honek estatus propioa izango luke.

Marko politiko honen elaborazioa eta zehaztapena ondoko irizpideak jarraituz egingo litzateke:

- Akordio Politikoa Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialen artean adostuz.
- Indarrean dagoen esparru politiko eta instituzionaletik abiatuz (herritarren borondate demokratikoaren ondorio ez dena), Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia lurraldeentzat marko berria eraikiz.
- Zaharkitutako eskemak diren anexioa, integrazioa eta zatiketa baztertuz, euskal lurraldeen arteko harremana elkarren arteko errespetuan eta herritarren borondate demokratikoen metaketan oinarrituz.
- Esparru berria indarrean sartu ahal izateko, halaber, bai Euskal Autonomi Erkidegoko herritarren gehiengoak, bai

Nafarroako Foru Komunitateko herritarren gehiengoak onartuz.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren egituraketa politiko instituzionalaz

Autonomia proposatzen dugu Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, euskal herrialde hauen aitortza instituzionalean oinarritua eta proiektu politiko guztiak defendatzeko eta gauzatzeko aukera eskainiko duena. Herritar guztien erabakia jaso ahal izango duen marko demokratikoaz ari gara.

Gure proposamenaren edukietara joz, ondoko puntuak jasotzen ditu:

- Estatu frantziarrak behingoan Euskal Herria aitortu eta hiru herrialdeentzat marko politiko eta instituzional berria aldarrikatzen dugu.
- Zentzu juridikoan Autonomiaren izaera izango luke.
- Erabakitze eskubidea euskal herritarrengan utziko lukeena eta ondorioz, gure proiektu politikoaren garapenari aukera demokratikoa irekitzen diona.
- Marko berri honen onarpen eta garapenerako bertako herritarren atxikimendua ezinbestekotzat duena.
- Eta era berean, euskal lurralde horietan gure Herriaren, hizkuntzaren eta kulturaren biziraupena bermatze aldera funtsezkoak diren eskuduntzen beharra ezinbestekoa ikusten dugularik.

Udalerriak eta nazio antolaketa

Ezker Abertzalearentzat, Euskal Herri osoan garrantzi aparta dute Udalek, hauen bidez bideratzen baita nazioaren antolaketa demokratikoa herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioetatik hasita. Hots, udal bakoitzetik hasita, eta Euskal Herri osoa bil dezakeen Udalen instituzio gorena osatu arte, hau da, Euskal Herriko udal eta hautetsi guztien bilgunea, Udalbiltza osatu arte.

3.- AKORDIOA ETA KONPROMISOAREN GARAIA

Marko demokratikoari, konpromisoari eta akordioari atea zabaltzeko garaia da. Euskal Herrian marko demokratiko integrala, irekia, eskubideekiko bermeak jasoko dituen eta baketsua lortzeko konpromisoak behar ditugu, aukera ideologiko eta politiko guztiak berdintasunean agertu eta garatuko dituen.

Gaurko egoeratik, bizi dugun errealitatetik, marko demokratiko berri horretarako bidea egin: hau da Ezker Abertzaleak aurkezten duen proposamen zehatz hauen mamia. Egiteko moduko trantsizioa da hau, Euskal Herriari, Estatu espainiarrari eta Estatu frantziarrari aurkezten zaien pasabidea. Euskal herritar guztion esku uzten den aukera. Baina aukera hori gauzatu ahal izateko Estatu biek borondate demokratikoa agertu behar dute, behingoz Euskal Herria badela onartu eta euskaldunon erabaki demokratikoa errespetatuko dituen.

Geure aldetik, herritar guztiok eta eragile politiko, sindikal eta sozial guzti-guztiok gara osatu beharreko marko demokratikoa eraikitzeke protagonista nagusiak. Elkarrizketa eta akordioa dira eginkizun historiko horretarako ezinbesteko tresnak. Bakea eta askatasuna geurean izatekotan, auzolanaren emaitza izango dira, zalantzarik gabe.

Marko demokratiko berri hau etorkizunak dakartzan arazo nagusiei modurik egokienean aurre egiteko aukera ere bada. Euskal jendartearen antolaketa justu eta orekatua lortzeko, lurraldearen antolaketa egokia burutzeko, Europan eta mundu globalizatu honetan ezagutzen diren arazo globalei aurre egin eta bestelako jendarte-eredu justu, solidario eta berritzailea eraikitzeke atea zabaltzen ditu, eta Ezker Abertzaleak ate horietatik egin nahi du etorkizunerako bidea.

Anoetan esan genuen eta gaur berresten dugu: eskuak zabalik dator Ezker Abertzalea. Konponbiderako, elkarrizketarako, akordiorako eskuak zabalik. Estatu espainiarrari eta Estatu frantziarrari mezu bera eskainiz: har ezazue behingoz konponbiderako bidea, hartu bakerako bidea, errespetatu ezazue Euskal Herria eta euskal herritar guztion erabaki demokratikoa.

Euskal Herriko alderdi politiko guztien aurrean ere, eskuak zabalik eta mezu argi hau emanaz: adostu dezagun guztion artean, orain, konponbiderako akordioa. Jar gaitzen ados Euskal Herrira marko demokratiko berria ekartzeko.

Euskal herritar guztiei berriz, etorkizuna, demokrazia eta bakea elkarrekin irabazteko deia eta konpromisoa luzatzen diegu. Euskal Herriarentzat marko demokratikoa osatzeko deia eta konpromisoa.

Muga arrotzen, gainerik, Euskal Herria berria.

Muga arrotzen bi aldeetan, Euskal Herria berria.

Ezker Abertzaleak eskuak zabalik ditu eta akordio eta konpromisoetarako prest dago.

Euskal Herrian, 2007-03-03